



NAFARROAKO  
**Aldizkari Ofiziala**

2020. urtea

55. zenbakia

**BEREZIA**

**Astelehena, martxoaren 16a**

A U R K I B I D E A

ORRIALDEA

**1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA**

**1.1. XEDAPEN OROKORRAK**

**1.1.3. Foru Aginduak**

- 48/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 15ekoa, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak emana, prebentzio neurriak hartzen dituena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako lantokietan eta haren erakunde autonomoetakoetan, koronabirusaren (COVID-19) eboluzio epidemiologikoa dela-eta. 3650
- 27/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 15ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, martxoaren 13ko 26/2020 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez hezkuntzaren esparruan neurriak hartu ziren koronabirusaren (COVID-19) egoeraren eta bilakaeraren ondorioz. 3650

**1.7. BESTELAKOAK**

- 19/2020 EBAZPENA, martxoaren 15ekoa, Garraioetako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira errepidez egiten den erabiltzaile guztientzako bidaiari-garraio publiko erregularraren zerbitzuetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenekoak diren horietan. Hori guztia, COVID-19ren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat. 3651

# 1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

## 1.1. XEDAPEN OROKORRAK

### 1.1.3. Foru Aginduak

**48/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 15ekoa, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak emana, prebentzio neurriak hartzen dituena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen autonomoetakoetan, koronabirusaren (COVID-19) eboluzio epidemiologikoa dela-eta.**

#### ATARIKOA

Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak martxoaren 12an eman 47/2020 Foru Aginduaren bidez, baimena eman zen COVID-19 dela-eta neurri batzuk hartzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen menpeko lantokietan.

Koronabirusaren (COVID-19) eboluzioa dela-eta suertatutako ohiz kanpoko egoerak ekarri du martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onestea, alarma egoera deklaratzeko duena COVID-19ren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez, zeinak ondorioak baititu 2020ko martxoaren 14tik aurrera.

Hori horrela, ikusita salbuespenekoa dela egoera, bidezkoa da zenbait neurri hartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileei dagokienez, haien babesa eta eskubideak bermatzearren.

Horrenbestez, eta otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuaren bidez esleiturik ditudan ahalmenak erabiliz,

#### AGINTZEN DUT:

##### 1. Lantokietan hartu beharreko neurriak.

Bi metroko tartea bermatuko da, gutxi gorabehera, lanpostuen artean. Tarte hori bermatu ezin denean, neurri hori bete dadin, neurriak hartu behar dituzte antolamenduan zuzendaritza nagusiek edo langileez arduratzen diren organoek: telelana edo presentziala ez den lanaren modalitateak, langileak lantokian antolatzea lanaldi arruntaren barnean lan presentziala eta ez presentziala tartekatuz edo bestelako neurri batzuk.

Langileek zorrozki eta hertsiki bete behar dituzte eskuak garbitzeko neurriak, elkarren arteko tartea gordetzekoak eta arnasa hartzekoak, osasun arloko agintariek hartu dituztenak.

##### 2. Bilerak.

Aurreko puntuko neurriak lan bileretan ere aplikatuko da. Izan ere, zerbitzu publikoak emateko ezinbestekotzat jotzen diren bilerak baino ez dira egingen.

3. Bertan behera gelditzen da jendeari ematen zaion arreta Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako lantokietan, salbu eta funtsezko zerbitzu publikoetan (osasun eta gizarte arloetako zerbitzuak, laguntza ematekoak eta segurtasun publikokoak). Telefono bidez eta modu telematikoa eman da arreta.

Aurrekoa gorabehera, zuzendaritza nagusiek funtsezko zerbitzu publikotzat har dezakete zerbitzu edo unitate bat, jendeari arreta emateko ondorioetarako, uste badute ezinbestekoa dela bere eskumener esparruaren barnean.

Jendeari arreta ematen zaionean, bermatu behar da lanpostuaren eta jendearen arteko tartea 2 metrokoa dela gutxi gorabehera.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileak kolektibo kalteberetan edo arriskuko populaziokoetan egon daitezkeenean, zerbitzu presentziala eman behar badute, eskaera bat igorriko diote kasuan kasuko laneko arriskuen prebentzio zerbitzuari, horrek haien egoera azter dezan banan-banan eta jarraibideak eman diezazkien zerbitzuak emateari dagokionez.

Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, kolektibo kalteberak edo arriskukoak izanzen dira osasun arloko agintaritzak hala jotakoak.

5. Baimena ematen zaie zuzendaritza nagusiei eta langileez arduratzen diren organoei beharrezko neurriak har ditzaten antolamenduan, batenagarriak izan daitezten langileei dagokien prebentzio neurriak, betiere osasun arloko agintaritzaren jarraibideak beteko dituztenak, eta zerbitzu publikoa.

Ondorio horietarako, neurri hauek har daitezke:

a) Lanaldia maldatzea, kontuan hartu gabe xedapen hauen bidez ezarritako mugak: Lehendakartzako, Justizia eta Barneko kontseilariaren martxoaren 10eko 257/2011 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitateko

Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen lan ordutegia epeka maldatzeko neurriak ezartzeko jarraibideak onetsi zituena, eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren abenduaren 19ko 197/2019 Foru Agindua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen 2020ko lan egutegia onetsi zuena.

b) Ezinbestekoa denean, langileak etxean gelditzeko baimena eman da, eta hala egitea ezinbesteko eginbehartzat hartuko da, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onetsi zuen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. Aldi baterako bertan behera uztea jarduna unitateetan edo lantokietan.

Osasun arloko agintaritzak erabaki duenean unitateak edo lantokiak itzea edo jarduna bertan behera uztea, unitate edo lantoki horietako langileek etxean ematen duten denbora benetako lantzat hartuko da.

Aurrekoa ezertan ukatu gabe, langile horiek bete beharko dituzte kasuan kasuko arduradunen jarraibideak, uneren batean esleitzen bazaizkie etxetik egiten ahal dituzten lan edo eginkizun ez presentzialak.

7. Organo eskudunak bermatuko du egunero garbitzen direla lantokiak.

8. Ezinbesteko kasuetara mugatuko da lantokietara sartzea Nafarroako administrazio publikoen eta haien erakunde autonomoen zerbitzuko langileak ez diren pertsonak.

9. Langileentzako eremu komun erabilera murriztuko da (aldagelak, jangelak, bilera aretoak, kafea hartzekoak eta antzekoak). Haien erabilera baimentzeko, adierazitako segurtasun tartea bermatu behar da, eta soilik ezinbestekoa denean zerbitzu publikoa behar bezala emateko.

10. Mugitzeko arazoak dituzten pertsonak behar-beharrezkoa duten kasuetara mugatzen da igogailuen erabilera, eta banan-banan erabili beharko dira beti, posible bada.

11. Foru agindu honek sinatzen den unetik hasita izanzen ditu ondorioak.

12. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2020ko martxoaren 15ean.—Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria, Javier Remirez Apestegui.

F2003999

**27/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 15ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, martxoaren 13ko 26/2020 Foru Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez hezkuntzaren esparruan neurriak hartu ziren koronabirusaren (COVID-19) egoeraren eta bilakaeraren ondorioz.**

Osasuneko kontseilariaren martxoaren 13ko 3/2020 Foru Aginduaren bidez, osasun publikoko jarraibide eta prebentzio neurriak hartu ziren koronabirusaren (COVID-19) egoeraren eta bilakaeraren ondorioz. Foru agindu honek agintzen du hezkuntza jardueraren presentzial guztiak eteteko ikastetxe eta ikasmaila guztietan, eskolako jarduerak zein eskolaz kanpokoak, zero urtetik hasi eta unibertsitate mailaraino, hori barne, hala ikastetxe publikoetan nola pribatuak, baita hezkuntza arloko jardueraren osagarriak ere.

26/2020 Foru Agindua, martxoaren 13koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, neurriak hartzen dituena koronabirusaren (COVID-19) egoeraren eta bilakaeraren ondorioz.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, alarma egoera deklaratu da COVID-19k eragindako osasun krisia kudeatzeko.

Aipatu errege dekretuaren 9. artikulua honako hau ezartzen du:

“1. Eten egiten da aurreko hezkuntza jardueraren Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 3. artikuluan jasotako ikastetxe eta etapa, ziklo, gradu, ikasturte eta irakaskuntza maila guztietan, unibertsitate irakaskuntza barne, bai eta beste ikastetxe publiko edo pribatu batzuetan ematen den beste edozein hezkuntza- edo prestakuntza-jardueraren ere.

2. Etenaldiak irauten duen bitartean, hezkuntza jarduerak urrutiko eta «on line» modalitateen bidez egingen dira, ahal den guztietan.”

Era berean, aipatu errege-dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuak zehazten du honako hau:

“1. Bertan behera uzten dira baldintzak, eta eten egiten dira epeak sektore publikoko erakundearen prozedurak izapidetzeko. Epeen zenbaketa

berriz hasiko da errege dekretu hau edo, hala badagokio, haren luzapenek indarra galtzen duten unean.”

Azaldutakoaren arabera eta gertatzen ari diren salbuespenezko inguru-abarrak kontuan hartuta, bidezkoa da aldatzea Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 13ko 26/2020 Foru Agindua, hezkuntzaren esparruan hartu beharreko neurriak egungo egoerara egokitzeko.

Era berean, bidezkoa da Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 13ko 26/2020 Foru Aginduaren 5. puntua aldatzea, garraio eta jantokiko zerbitzu osagarrietako kontratu batzuk Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeak arautzen baititu.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak ematen dizkidan eskudantziak erabiliz,

#### AGINTZEN DUT:

1. Aldatzea Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 13ko 26/2020 Foru Aginduaren 2. puntua; foru agindu horren bidez neurriak ezartzen dira koronabirusaren (COVID-19) egoeraren eta bilakaeraren ondorioz hezkuntzaren arloan; honela idatzita geldituko da:

“2. Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe guztietan hartu beharreko neurriak.

Irakasleek, bitarteko digital nahikoak dituzten heinean, urrutiko irakas-kuntza lana eta koordinazio lanak egiten dituzte, ikastetxera joan gabe, baldin ikasleei aurrez aurrekoa ez den irakaskuntza arreta bermatzen bazaie.

Ikastetxeetako arduradunek, beren pedagogia- eta kudeaketa-autonomiaren esparruan, aurrez aurrekoak ez diren irakaskuntza-saioak antolatu eta koordinatuko dituzte, eta beharrezkoa izanez gero, langileak ikastetxean unean-unean egotea eskatzen ahalko dute. Ikasle guztien aurrez aurrekoak ez den irakaskuntza arreta bermatzeko behar diren antolaketa neurri guztiak egiten dira. Nolanahi ere, Batxilergoko 2. mailako ikasleei emanen zaie lehentasuna.

Irakasleek, ikastetxeko zuzendaritzaren koordinaziopean, ikasleekin aurrez aurrekoak ez diren irakaskuntza-jarduera guztien jarraipena eta erregistroa egiten dute.

Aurreko hiru paragrafoetan ezarritakoa aplikatzeko izanen da osasun arloko agintaritzak hartutako neurriekin bateragarria den neurrian.”

2. Aldatzea Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 13ko 26/2020 Foru Aginduaren 3. puntua; foru agindu horren bidez neurriak ezartzen dira koronabirusaren (COVID-19) egoeraren eta bilakaeraren ondorioz hezkuntzaren arloan; honela idatzita geldituko da:

“3. Epe guztiak etetea aurreinskripzioa eta matrikula egiteko.

COVID-19k eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, bertan bestera gelditzen eta eten egiten dira Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe, ziklo, gradu, ikasturte eta irakaskuntza maila guztietako ikasleen aurreinskripzio- eta matrikulazio-epe guztiak.”

3. Aldatzea Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 13ko 26/2020 Foru Aginduaren 5. puntua; foru agindu horren bidez neurriak ezartzen dira koronabirusaren (COVID-19) egoeraren eta bilakaeraren ondorioz hezkuntzaren arloan; honela idatzita geldituko da:

“5. Garraioa eta jantokiko zerbitzu osagarrien kontratuak bertan behera uztea, interes publikoko arrazoiak direla-eta.

Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 150. artikuluan eta Kontratu Publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 109. artikuluan xedatutakoarekin bat, interes publikoko arrazoiengatik, garraio eta jantokiko zerbitzu osagarrien kontratuak eten egiten dira 2020ko martxoaren 16tik aurrera, aurrez aurreko hezkuntza jarduerari berriro ekin arte.”

4. Foru agindu honen aurka gora jotzeko errekurtoa jar dezakete interesdunek, Nafarroako Gobernuari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

5. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

6. Foru agindu hau igortzea Idazkaritza Tekniko Nagusira, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusira, Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusira, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusira, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzura, Ikastetxeen Finantzaketaren, Ikasketetarako Laguntzen eta Zerbitzu Osagarrien Zerbitzura, ikastetxetara eta garraioa eta jantokiko zerbitzu osagarrien kontratuak adjudikatuta dituzten enpresetara, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2020ko martxoaren 15ean.—Hezkuntzako kontseilaria, Carlos Gimeno Gurpegui.

## 1.7. BESTELAKOAK

**19/2020 EBAZPENA, martxoaren 15ekoa, Garraioetako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira errepidez egiten den erabiltzaile guztientzako bidaiari-garraio publiko erregularraren zerbitzuetan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenekoak diren horietan. Hori guztia, COVID-19ren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat.**

2020ko martxoaren 15ean, indarrean sartu da martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, zeinaren bidez alarma egoera deklaratzeko xedez COVID-19ren ondoriozko osasun krisiko egoera kudeatzeko xedez.

Errege dekretu horrek pertsonen zirkulatzeko askatasunari mugak ezartzen dizki, eta birusari eusteko neurriak hartzen ditu zenbait arlotan; horren ondorioz, asko gutxitzen da Estatu osoko pertsonen joan-etorriak egiteko beharra.

463/2020 Errege Dekretuaren 7.1 artikulua honako hau xedatzen du:

“Alarma egoera irauten duen bitartean, erabilera publikoko bideetatik zirkulatzeko ahalko da honako jarduerak hauek egiteko soilik:

- Elikagaiak, farmaziako produktuak eta oinarrizko beharretarako produktuak erostea.
- Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduetara joatea.
- Lantokira joatea lanaldia betetzeko edo enpresa edo lanbide jarduerak egiteko.
- Ohiko bizilekura itzultzea.
- Adinekoei, adingabeei, mendekoei, desgaitasuna duten pertsonen edo bereziki kalteberak diren pertsonen arreta ematea eta zaintzea.
- Finantza eta aseguru entitateetara joatea.
- Ezinbesteko edo premiazko kasuetan.
- Horien pareko beste edozein jarduera; banan-banan egin beharko da, salbu eta desgaitasuna duten pertsonen lagun egiten bazaie edo beste kausa justifikatzen badago.”

Osasuneko kontseilariaren martxoaren 14ko 4/2020 Foru Aginduaren bidez, prebentzio neurriak eta osasun publikoko jarraibideak ezarri dira koronabirusak (COVID-19) eragindako egoeraren eta haren bilakaeraren ondorioz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan adierazitakoarekin bat. Besteak beste, foru agindu horren bidez hezkuntzako eta prestakuntzako jarduerak presentzialak bertan behera uzten dira, eta honako hauek jendearentzat ixten dira: justizia jauregiak eta bake epaitegiak, haurren aisialdirako lokalak eta instalazioak, liburutegien eta museoen sarea, ikasleen egoitzak eta aterpeak, ostatuak, jatetxeak, kafetegiak, saltoki batzuk, zinemak, antzokiak, etab.

Bidaiarien garraioaren arloan, 463/2020 Errege Dekretuaren 14.2.c) artikuluan honako hau ezartzen da:

“Garraio eskaintzari eutsiko zaio bidaiarien errepideko garraio zerbitzuan eta trenbideko eta itsasoko zerbitzuetan, baldin eta autonomia erkidegoen edo toki entitateen eskumenen barnean badaude eta kontratu publiko baten edo nahitaezko zerbitzu publikoko kontratu baten mende badaude, edo titulartasun publikokoak badira.

Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak eta garraioaren arloan eskumenak dituzten autonomia erkidegoetako eta toki entitateetako agintaritzek zerbitzuak murrizteko portzentaje bat ezartzen ahaliko dute, osasun egoerak hala eskatuz gero, baita zerbitzu horiek emateko beste baldintza berariazko batzuk ere.

Neurriak hartzerakoan, kontuan hartuko da bermatu behar dela herritarrek beren lantokietara eta oinarrizko zerbitzuetara joan ahal izatea.”

Garraioen Plangintzaren eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuak honako hau adierazi du:

Erabiltzaile guztientzako hiriarteko garraio publiko erregularrari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa 36 emakidaren titularrak da.

Aurreko guztia ikusirik, eta 14.2.c) artikuluan ezarritakoarekin bat, proposatzen da %50era murriztea erabiltzaile guztientzako hiriarteko garraio publiko erregularraren zerbitzua, administrazio honen eskumenekoa, alarma egoerak irauten duen bitartean; betiere bermatu beharko da egunero joateko bidaia bat eta itzultzeko beste bat egiten dela emakida bakoitzeari eta kontzesio tituluan baimentzen diren zirkulazio guztietan.

Enpresa emakidadunek behar diren egokitzapenak egin beharko dituzte ebazpen honetan ezarritako portzentajea betetzeko. Garraio zerbitzuak egokitzean, bermatu beharko da herritarrek beren lantokietara eta oinarrizko zerbitzuetara joan ahal izatea, eta betiere lehenetsiko da goizeko lehen orduetako bidaiak eskaintzea.

Enpresa emakidadunek, %50eko portzentajea betetzeko egokitzapenak egin ondoan, behar den informazioa eman beharko diete zerbitzu horien erabiltzaileei.

14.2.g) artikuluan adierazitakoarekin bat, enpresa emakidadunek behar diren neurriak hartuko dituzte erabiltzaileak elkarrengandik ahalik eta urrunen egon daitezen, eta ezin izanen dira bete ibilgailuko eserlekuen %50 baino gehiago.

Hartutako neurrien inpaktua ebaluatu ahal izateko eta beste neurri batzuk ezarri behar diren edo ez aztertzeko, enpresa emakidadunek honako hauen berri eman beharko diote egunero Garraio Zuzendaritza Nagusiar, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan adierazitakoari jarraikiz: egindako zerbitzuak, zerbitzu bakoitzeko erabiltzaile kopurua, gertatu diren gorabeherak, eta beste edozein inguruabar, uste badute horren berri eman behar dutela.

Autobus geltokietan, zerbitzu horiek emateko ezinbestekoak diren jardueri eutsiko zaie.

Horrenbestez, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 263/2019 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriko 1. atalaren bidez emandako eskumenak erabiliz, eta Garraioen Plangintzaren eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuak egindako proposamenari jarraituz.

#### EBAZTEN DUT:

1. %50era murriztea erabiltzaile guztientzako hiriarteko garraio publiko erregularraren zerbitzua, Administrazio honen eskumenekoa, alarma egoerak irauten duen bitartean.

Gutxienez ere, emakida bakoitzean, joateko bidaia bat eta itzultzeko bidaia bat egingen da egunero. Kontzesio tituluan baimentzen diren zirkulazio guztiak hartuko dira kontuan.

Enpresa emakidadunek behar diren egokitzapenak egin beharko dituzte ebazpen honetan ezarritako portzentajea betetzeko. Garraio zerbitzuak egokitzean, bermatu beharko da herritarrek beren lantokietara eta oinarrizko zerbitzuetara joan ahal izatea, eta betiere lehenetsiko da goizeko lehen orduetako bidaia eskaintzea.

Enpresa emakidadunek, %50eko portzentajea betetzeko egokitzapenak egin ondoan, behar den informazioa eman beharko diete zerbitzu horien erabiltzaileei.

2. 14.2.g) artikuluan adierazitakoarekin bat, enpresa emakidadunek behar diren neurriak hartuko dituzte erabiltzaileak elkarrengandik ahalik eta urrunen egon daitezen, eta ezin izanen dira bete ibilgailuko eserlekuen %50 baino gehiago.

3. Enpresa emakidadunek honako hauen berri eman beharko diote egunero Garraio Zuzendaritza Nagusiar, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan adierazitakoari jarraikiz: egindako zerbitzuak, zerbitzu bakoitzeko erabiltzaile kopurua, gertatu diren gorabeherak, eta beste edozein inguruabar, uste badute horren berri eman behar dutela.

4. Autobus geltokietan, zerbitzu horiek emateko ezinbestekoak diren jardueri eutsiko zaie.

5. Garraio Zuzendaritza Nagusiko ikuskapen zerbitzuek gainbegiratzeko ahalik dute nola ari diren betetzen ebazpen honetan ezarritako neurriak.

6. Garraio Zuzendaritza Nagusiak beste neurri batzuk hartzen ahaliko ditu, ebazpen honetan jaso ez direnak, COVID-19ren ondoriozko egoeraren bilakaera zein den.

7. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko martxoaren 15ean.—Garraioetako zuzendari nagusia, Berta Miranda Ordobas.

F2003998